# LEZAMAKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO I.PLANAREN ZIRRIBORROA

**OHARRA:** Planaren ardatz estrategiko bakoitzari ondorengo kolorea dagokio.

- MAINSTREAMING-a, GENERO IKUSPEGIAREN TRANSBERZALIZAZIOA
- EMAKUMEEN JABEKUNTZA
- BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA
- EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **TOKI ADMINISTRAZIOA** | EM 1. | Udaleko politika eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 1.1. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana ezagutaraztea. | EM 1.1.1. | Udalerriko eragile guztien artean (herritarrak, gizarte-eragileak, enpresa sarea…) Berdintasun Planaren edukia zabaltzea, hainbat hedabide erabiliz. | Inplikatutako eragileek Planaz duten ezagutze maila. |
| | | | | | EM 1.1.2. | Teknikarien eta politikarien artean, euren arloari dagokion Planaren laburpena banatzea. | Inplikatutako eragileek Planaz duten ezagutze maila. |
| | | | EM 1.2. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana sustatzea. | EM 1.2.1. | Teknikarien eta politikarien artean, euren arloari dagokion Planaren laburpena babestea eta finkatzea. | Berdintasunerako egitura egonkorra izatea. |
| | | | | | EM 1.2.2. | Urteko plan operatiboak egitea. | Planak egitea (kopurua, mota…) |
| | | | EM 1.3. | Genero-ikuspegia txertatzea udal kudeaketan. | EM 1.3.1. | Teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea udal kudeaketan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziaz. | Sentsibilizazio jardueren kopurua eta mota; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | | | EM 1.3.2. | Genero arloko materiala sustatzea eta erraztea teknikarien eta politikarien artean. | Prestakuntzaren sustapen- eta errazte-jardueren kopurua. Hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | | | EM 1.3.3. | Lantaldeak antolatzea udal kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko. | Lantaldeak izatea; horien asebetetze maila. |
| | | | | | EM 1.3.4. | Berdintasun arloko jarduerak gauzatzeko aurrekontu partida ezartzea. | Aurrekontu partida izatea. |
| | | | | | EM 1.3.5. | PAREKATUZ Berdintasunaren aldeko Bizkaiko erakundeen sarean parte hartze aktiboa izatea. | Bilkuren aktak, foroak… |
| | | | EM 1.4. | Udal informazio sistemetan sexuaren araberako bereizitako datuak izatea (estatistikak, diagnosiak, txostenak…) | EM 1.4.1. | Udal sistema informatikoak egokitzea, sexu aldagarria eskura dagoela bermatzeko, bai eta beharrezkoak diren beste aldagarri batzuk ere. | Egokitutako sistema informatikoa izatea; sexuaren arabera bereizitako datuak dituzten udal diagnosi, azterlan eta txostenen kopurua eta mota. |
| | | | | | EM 1.4.2. | Udal diagnosi, azterlan eta txostenetan bildutako datuei buruzko genero-analisia egitea, hobekuntzak ezartzeko. | Egindako analisien kopurua eta mota; ezarritako edota gauzatutako hobekuntzen kopurua eta mota. |
| | | | EM 1.5. | Kontratazioetan aukera berdintasunerako politika garatzea, eta udal langileak prestatzea eta sustatzea. | EM 1.5.1. | Aldian behin argitalpenak, baldintza pleguak, lan eskaintzak eta abar berrikustea. Erabilitako hizkuntza eta diskriminazioa gertatzeko aukera aztertuko da, eta beharrezkoak diren aldaketak eta zuzenketak egingo dira. | Berrikusitako agirien kopurua. |
| | | | | | EM 1.5.2. | Udal langileak hautatzeko eta kontratatzeko prozedurak aztertzea, aukera berdintasuna bermatzeko. | Prozeduren analisiak egiteko mekanismoak. |
| | | | | | EM 1.5.3. | Udal oposizioetarako prozesuetan berdintasunari buruzko gaiak sartzea | Berdintasunari buruzko gaien kopurua oposizio prozesuetan. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | EM 1.5.4. | Erakunde publikoen, pribatuen eta elkarteen berdintasun politiken garapena balioestea, diru-laguntzak emateko, azpikontratatzeko, hitzarmenak sinatzeko eta abarretarako meritu gisa. | Pleguetan, hitzarmenetan eta abarretan sartutako klausula mota eta kopurua. |
| | | | | EM 1.5.5. | Berdintasun aukeren arloan teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea eta prestatzea. | Sentsibilizazio eta prestakuntza jardueren kopurua eta mota; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | | EM 1.5.6. | Udaleko prestakuntza planean aukera berdintasunari buruzko moduluak sartzea, IVAPekin hitzarmena. | Prestakuntza jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| EE 1. | Udalean emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea. | EE 1.1. | Udaleko emakume langileen eta politikarien ahalduntze prozesuak bideratzea. | EE 1.1.1. | Eztabaida taldeen, galdetegien eta abarren bidez emakumeen beharrak aztertzea. | Emakumeen prestakuntza eta sustapen arloko beharrei buruzko ezagutza maila. |
| | | | | EE 1.1.2. | Ahalduntze ikastaroei edo jardunaldiei buruzko informazioa ematea. | Emandako informazioari buruz emakume hartzaileek duten asebetetze maila. |
| | | | | EE 1.1.3. | Prestakuntzan Udaleko emakumeen parte-hartzea eta sarbidea sustatzea eta bideratzea. | Emakumeen parte-hartze maila prestakuntza jardueretan. |
| EC 1. | Udaleko langileen eta politikarien artean kontziliazioa eta erantzukidetasuna sustatzea. | EC 1.1. | Udaleko langileen bizitza pertsonala,lana eta familia bateragarri egiteko aukera bideratzea. | EC 1.1.1. | Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko dauden bitarteko eta neurriei buruzko informazioa ematea Udaleko langileei. | Kontziliazio neurriei buruzko ezagutza maila eta neurri horien erabilpen maila. |
| | | | | EC 1.1.2. | Udaleko langileen kontziliazio arloko beharren azterketa eta ezagutza. | Udaleko langileen kontziliazio arloko beharren azterketa eta ezagutza. |
| | | EC 1.2. | Etxeko lanetan eta pertsonen zainketan Udaleko gizonen erantzukidetasuna sustatzea. | EC 1.2.1. | Udaleko gizonak, aitatasun edo pertsonak zaintzeagatiko baimenak hartzera bultzatzea eta sentsibilizatzea. | Baimenak eskatzen dituzten gizonen kopurua. |
| EV 1. | Toki administrazioan jazarpen sexista eta sexuala aurreikustea eta desagerraraztea. | EV 1.1. | Udalean eta enpresa azpikontratatuetan jazarpen sexista eta sexuala aurreikustea. | EV 1.1.1. | Lanean jazarpen sexistari eta sexualari aurrea hartzeko barne-protokoloa osatzea. | Jazarpen sexistari eta sexualari aurrea hartzeko Udal protokoloa izatea. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KULTURA ETA KIROLA** | EM 2. | Kultura eta kirol arloan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 2.1. | Gizarte, hezkuntza eta kirol jarduerak genero-ikuspegitik planifikatzea eta gauzatzea. | EM 2.1.1. | Arloko langile arduradunei genero arloko prestakuntza erraztea, euren lanean genero-ikuspegia txerta dezaten. | Prestakuntza jarduera motak eta kopurua; prestakuntza jardueretan parte-hartze eta asebetetze maila. |
| | | | | | EM 2.1.2. | Kultura eta kirol jarduerak genero-ikuspegitik gauzatzea. | Genero-ikuspegitik gauzatutako jardueren kopurua; jardueretan genero-ikuspegiaren txertatze maila; euren jardueretan genero-ikuspegia txertatuta duten gizarte, kultura eta kirol arloko zerbitzuetarako enpresa azpikontratatuen kopurua. |
| | | | | | EM 2.1.3. | Kultura eta kirol jarduerak diseinatu, plangintza egin eta gauzatzea Udalerriko emakumeen beharren, nahien eta interesen arabera. | Udalerriko emakumeen beharrei, nahiei eta interesei buruzko analisien txostena. |
| | | | | | EM 2.1.4. | Txorierriko Gazte-Planaren jardueretan genero-ikuspegiaren integrazioa sustatzea. | Genero-ikuspegitik gauzatutako jardueren kopurua; aldatutako jardueren kopurua. |
| | EE 2. | Gizarte, kultura eta kirol arloan emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzea. | EE 2.1. | Kultura arloan eta arlo artistikoan emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzea. | EE 2.1.1. | Emakumeentzako erreferente izango diren gizarte eta kultura guneak sortzea (informazioa eskuratzea, prestakuntza, kultura arloko kezkak garatzea…) | Sortutako guneak. |
| | | | | | EE 2.1.2. | Udal liburutegia genero arloko ikerketa eta prestakuntza erraztuko duten materialez eta baliabideez hornitzea. | Emakumeei zuzendutako materia eta baliabide erabilgarrien kopurua. |
| | | | | | EE 2.1.3. | Emakumeek egindako ekoizpen artistiko eta literarioak zabaltzea. | Emakumeek egindako ekoizpenen kopurua gizarte eta kultura arloko eskaintzan. |
| | | | | | EE 2.1.4. | "Laiak" Emakumeen Elkarteak antolatutako gizarte eta kultura arloko jarduerak sustatzea. | "Laiak" elkarteak antolatutako jardueren kopurua eta mota. |
| | | | | | EE 2.1.5. | Herri-epaimahai paritarioak osatzea, kultura sustatze aldera gauzatzen diren arte edo literatura lehiaketetako sariak banatzeko. | Herri-epaimahai paritarioak izatea. |
| | | | EE 2.2. | Emakumeen parte-hartzea sustatzea kirol arloan. | EE 2.2.1. | Udalerriko kirol eskaintza, instalazioak eta guneak emakumeen beharretara egokitzea, emakumeen parte-hartzea eskasa gainditzeko helburuarekin. | Berriz diseinatutako jardueren kopurua. |
| | | | | | EE 2.2.2. | Gizonen nahiz emakumeen kirol jarduerak sustatzea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. | Laguntzen kopurua. |
| | | | | | EE 2.2.3. | Kirol eskaintzak, ekipamenduak eta guneak emakumeen eta gizonen behar, nahi eta interes bereizgarrietara egokitzearen jarraipena egitea. | Jarraipenaren txostena. |
| | | | EE 2.3. | Komunikabideetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzea. | EE 2.3.1. | Udalerri eta eskualde mailako komunikabideetan emakumeen parte-hartzea bermatzea, bai eta horietan presentzia orekatu izatea ere. | Komunikabideetan emakumeen presentzia orekatua eta hizkuntza ez sexistaren erabilera bermatuko duten bitartekoak izatea. |
| | | | | | EE 2.3.2. | Udal gizarte, kultura eta kirol jarduerak zabaltzean eta jakinaraztean hizkera ez sexista erabiltzea. | Hizkera ez sexistaren erabilera bermatuko duten bitartekoak izatea. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EC 2. | Kirol, gizarte eta kultura arloan zaintzaren erantzukidetasuna eta etika sustatzea. | EC 2.1. | Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika sustatuko dituzten gizarte eta kultura arloko guneak areagotzea. | EC 2.1.1. | Kontziliazio eta erantzukidetasun arloko urteko programa zehatza balioestea eta indartzea. | Lortutako emaitzei buruzko txostena. |
| | | | | EC 2.1.2. | Teknikariak prestatzea, erantzukidetasun kulturako jarduerak diseinatzeko eta garatzeko. | Prestakuntza jardueren kopurua. |
| | | | | EC 2.1.3. | Gizarte eta kultura arloko eta hezkuntzako animazioaren eremuko, aisialdia eta denbora libreko langileei prestakuntza ematea, zaintzaren eta erantzukidetasunaren inguruko balioak sortzeko metodologiak eta bitartekoak izan ditzaten. | Prestakuntza jardueren kopurua. |
| | | | | EC 2.1.4. | Erantzukidetasuna eta zaintzaren kultura sustatzeko jarduerak barnean hartuta, kulturaren eremuko zerbitzuak eskaintzen dituzten Hirugarren Sektoreko enpresak kontratatzea. | Jarduera horiek garatzen dituzten enpresa azpikontratatuen kopurua. |
| | | | | EC 2.1.5. | Haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko jarduera ludikoak gauzatzea, erantzukidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko. | Gauzatutako jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | | EC 2.1.6. | Zereginak dibertsifikatzeko tailerrak antolatzea emakumeentzat eta gizonentzat, generoaren eraikuntzak mugatzen ez dituen trebetasunak eta gaitasunak gara ditzaten biek. | Gauzatutako tailer motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | | EC 2.1.7. | Gauzatutako jardueren eraginaren jarraipena eta balioespena egitea. | Jarraipen eta balioespen txostena. |
| EV 2. | Gizarte, kultura eta kirol eremuetan sexismoa desagerraraztea. | EV 2.1. | Gizarte, kultura eta kirol jardun guztietan sexismoa desagerraraztea. | EV 2.1.1. | Kultura eta Kirol Saileko langileei prestakuntza eskaintzea irudi eta eduki sexistak identifikatzen ikas dezaten, hizkera egokia erabiltzeak duen garrantziaz jabe daitezen eta eguneroko lanean hizkera ez sexista erabiltzeko metodologia izan dezaten. | Jasotako prestakuntza mota eta kopurua. |
| | | | | EV 2.1.2. | Gizarte, kultura eta kirol arloko programazioaren hedapena berrikustea, irudi eta eduki sexistak zabal ez daitezen eta hizkuntza sexista erabil ez dadin. | Dokumentuak genero-ikuspegitik aztertzeko bitartekoak izatea. |
| | | | | EV 2.1.3. | Umeei eta gazteei zuzendutako gizarte, kultura eta kirol arloko jarduerak gauzatzea. Horietan, hizkuntzaren erabilera ez sexista sustatuko da eta emakumeen aurkako indarkeriari duen garrantzia emango zaio. | Gauzatutako jardueren kopurua; hartzaileen parte-hartze eta asebetetze maila. |
| | | | | EV 2.1.4. | Familiei prestakuntza eskaintzea, irudi eta eduki sexistak identifikatzen ikas dezaten, eta euren seme-alabentzako gizarte eta kultura arloko jarduerak aukeratzeko hezkidetza irizpideak erabil ditzaten. | Familiekin egindako prestakuntza saioen kopurua. Hartzaileen parte-hartze eta asebetetze maila. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HEZKUNTZA** | EM 3. | Hezkuntza arloan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 3.1. | Ikastetxeetan hezkidetza sustatzea. | EM 3.1.1. | Haur hezkuntzako eta Lehen hezkuntzako ikastetxeetan hezkidetza programak sustatzea, inplikatutako eragileekin lankidetzan (irakasleak, Guraso Elkartea, Eskola Kontseilua…) | Hezkidetza arloan egindako orientabide eta prestakuntza programen kopurua. |
| | | | | | EM 3.1.2. | Gurasoen elkarteari eta irakasleei zuzendutako genero-ikuspegiari buruzko orientabide eta prestakuntza jardunaldiak egitea. | Hartzaileen parte-hartze eta asebetetze maila. |
| | EE 3. | Hezkuntza arloan emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea. | EE 3.1. | Eskola kontseiluetan eta herritarren kontsulta eta partaidetza organoetan sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, umeei, gazteei eta nerabeei dagokienez. | EE 3.1.1. | Eskola kontseiluaren eta herritarren partaidetza organoen osaera aztertzea. | Analisien txostena. |
| | | | | | EE 3.1.2. | Eskola kontseiluetan eta herritarren partaidetza organoetan sexuen ordezkaritza orekatua sustatzeko irizpideak ezartzea. | Eskola kontseiluaren eta herritarren kontsulta eta partaidetza organoen bilakaera, umeei, gazteei eta nerabeei dagokienez, emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritzaren proportzioaren banaketan %40-%60 baino alde handiagoa dagoenean. |
| | EC 3. | Hezkuntza arloan erantzukidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea. | EC 3.1. | Hezkuntza arloan erantzukidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea ikasleen, irakasleen, familiartekoen eta abarren artean | EC 3.1.1. | Ikastetxeetan erantzukidetasunaren eta zaintzaren etikaren inguruko prestakuntza jardunaldiak antolatzea ikasleentzat, irakasleentzat eta familientzat. | Prestakuntza jardueren kopurua. Sentsibilizazio jardunaldietan parte-hartze maila. |
| | | | | | EC 3.1.2. | Kontzientziazio jardunaldien bidez familiak sentsibilizatzea. | Prestakuntza jardueren kopurua. Sentsibilizazio jardunaldietan parte-hartze maila. |
| | | | | | EC 3.1.3. | Familien, irakasleen eta udal arduradunen lankidetza sustatzea, familia, lana eta banakakoaren bizitza bateragarri egiteko eskolaz kanpoko jardunaldien diseinuan. | Prestakuntza jardueren kopurua. Sentsibilizazio jardunaldietan parte-hartze maila. |
| | EV 3. | Hezkuntza arloan sexismoa desagerraraztea. | EV 3.1. | Ikastetxeetan emakumeen aurkako indarkeria antzematea eta aurrea hartzea. | EV 3.1.1. | Ikasgeletan antzemandako indarkeria egoerei aurre egiteko udal baliabideen berri ematea irakasleei, bai eta jarraitu beharreko protokoloaren berri ematea ere. | Udalerriko ikastetxeko ikasgeletan antzemandako indarkeria egoeren kopurua. |
| | | | | | EV 3.1.2. | Indarkeriaren aurkako sentsibilizazio jardunaldiak egitea irakasleentzat eta familientzat, eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko programetan parte-hartzea sustatzea, besteak beste, Emakunderen NAHIKO programan. | Kontzientziazio eta sentsibilizazio jardunaldi edo jardueren kopurua; Emakunderen NAHIKO programan parte-hartze maila. |
| | | | | | EV 3.1.3. | Ikasleen artean indarkeria- eta sexu- jokabideei aurrea hartzeko tailerrak egitea. | Prestakuntza tailer motak eta kopurua; ikasleen parte-hartze eta asebetetze maila. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | HELBURU ZEHATZAK | JARDUERAK | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|
| **ENPLEGUA, FORMAKUNTZA ETA SUSTAPEN EKONOMIKOA** | EM 4. Enplegu Zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 4.1. Behargintza Txorierriko jardueretan genero-ikuspegiaren integrazioa babestea. | EM 4.1.1. Garatzen diren programetan genero-ikuspegia txertatzeko ekintzak sustatzea. | Prestakuntza jardueren kopurua; prestakuntza jardueretan parte-hartze maila. |
| | | | EM 4.1.2. Behargintza Txorierriko langileek, hau da sustapen ekonomiko, enplegu eta prestakuntza programen arduradunek, genero-ikuspegiaren inguruan behar duten prestakuntzari babesa ematea. | Enplegu eta prestakuntza arloko jardueretan genero-ikuspegiaren txertatze maila. |
| | | EM 4.2. Udalerriko lan eremuan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea. | EM 4.2.1. Eskualdeko enpresetan sentsibilizazio kanpaina egitea, emakumeak kontratatzeko, bati bat, tradizioz gizonenak izan diren lanpostuetarako. | Udalerriko enpresetan, emakumeak kontratatzeko, egindako sentsibilizazio kanpainen kopurua |
| | | | EM 4.2.2. Gizarteratzeko arazoak dituzten emakumeen kontratazioa sustatzea, udal lan-poltsetan, enpresetan eta abarretan. | Lan munduan sartzeko arazoak dituzten emakumeen kontratazio berrien kopurua; aurreko urteekiko azterketa konparatiboak. |
| | EE 4. Gizarte eta lan arloan emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea. | EE 4.1. Gizarte eta lan arloan emakume eta gizonak parekatzea bultzatzea. | EE 4.1.1. Enpresak sortzean aukera berdintasuna sustatzeko Behargintza Txorierriko Ekimen Sailak gauzatzen dituen jarduerei babesa ematea. | Udalerriko emakumeen parte-hartze maila enpresa eta autoenplegu jardueretan. |
| | | | EE 4.1.2. Udal enplegu deialdietan aukera berdintasuna bermatzea. | Udal enplegu deialdietan aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoak izatea. |
| | | EE 4.2. Ardura lanpostuetan emakumeen presentzia sustatzea. | EE 4.2.1. Udal langileek eta behargintzako langileek barne-prestakuntzarako aukera berdinak izatea bermatzea, horretarako, barne-promozioa edota lan baldintzen hobekuntza ahalbidetuz. | Udaleko langileek barne-prestakuntzarako eta promoziorako aukera berberak izango dituztela bermatuko duten bitartekoak izatea. |
| | | | EE 4.2.2. Udaleko edo Behargintzako ardura lanpostuen lan jardunak lanaldira egokitzea edota kontziliazio neurriak eskaintzea. | Lan jardunak egokitzeari buruzko txostena. |
| | EC 4. Kontziliazioan eta erantzukidetasunean oinarritutako gizarte antolaketa eredu berria sustatzea. | EC 4.1. Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurrien erabilera sustatzea. | EC 4.1.1. Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko beharren eta udalerrian dauden bitartekoen azterketa. | Kontziliazio arloko beharren analisien txostena; dauden bitartekoen katalogoa. |
| | | | EC 4.1.2. Herritarrak (enpresak, familiak…) sentsibilizatzeko, bateratze eta erantzunkidetasun neurrien berri emateko kanpaina egitea, eskura dituzten bitartekoak erabil ditzaten. | Erabilitako hedabideen kopurua; eragile hartzaileek (familiak, enpresak…) neurriei buruz duten ezagutza maila. |
| | | | EC 4.1.3. Sentsibilizazio jarduerak egitea, udalerriko, udaleko eta enpresetako gizonek aitatasun baimenak eta helduen zaintzarako baimenak har ditzaten. | Sentsibilizazio jarduera motak eta kopuruak; kanpainaren helmen maila. |
| | EV 4. Gizarte eta lan arloan jazarpen sexistari aurrea hartzea eta desagerraraztea. | EV 4.1. Lanean jazarpen sexitari aurrea hartzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa ezartzea. | EV 4.1.1. Behargintzako erabiltzaileei jakinaraztea zer den jazarpen sexista, non gertatzen den, ondorioak zeintzuk diren eta nola jokatu behar den. | Osatutako informazio euskarri motak eta kopurua. |
| | | | EV 4.1.2. Lanean jazarpen sexistari aurrea hartzeko eta horren aurrean jarduteko barne-protokoloa ezartzea. | Jazarpen sexistari aurrea hartzeko protokoloa. |
| | | | EV 4.1.3. Udalerriko enpresen artean zabaltzea beharrezkoa dela jazarpen sexistari aurrea hartzeko protokoloak izatea. | Informazio euskarri motak; enpresen sarean izandako eragin maila. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ONGIZATEA | EM 5. | Gizarte Zerbitzuetako arloko jardueretan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 5.1. | Gizarte Zerbitzuetako arloko jardueretan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 5.1.1. | Gizarte Zerbitzu mankomunatuek antolatzen dituzten genero arloko jarduerak sustatzea | Genero-ikuspegiaren arloan egindako jardueren kopurua. |
| | | | | | EM 5.1.2. | Diagnosi, plangintza, esku-hartze eta ebaluazioetan genero-ikuspegia txertatzea. | Egindako diagnosi, planifikazio eta ebaluazioetan genero-ikuspegiaren txertatze maila. |
| | | | | | EM 5.1.3. | Genero-ikuspegiaren inguruan arloko teknikariek behar duten prestakuntza sustatzea eta erraztea. | Teknikarien parte-hartze eta asebetetze maila generoaren arloko prestakuntza programetan. |
| | EE 5. | Diskriminazio anitza jasaten duten edota gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzea. | EE 5.1. | Diskriminazio anitza jasaten duten edota gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeentzako bitartekoak egokitzea. | EE 5.1.1. | Teknikariak gaitzea emakumezko erabiltzaileei ahalduntzea lortzen edo hobetzen lagundu diezaieten. | Ahalduntzearen arloko prestakuntza jardueren kopurua. |
| | | | | | EE 5.1.2. | Gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeentzako lanerako prestakuntza programak gauzatzea. | Lanerako prestakuntza programetan parte hartu duten udalerriko emakumeen kopurua. |
| | | | | | EE 5.1.3. | Irizpideak malgutzea, emakumezko etorkinei, gizarte- eta ekonomia-bitarteko eskasak dituzten emakumeei, drogamenpekotasun arazoak dituztenei… lehentasuna emateko, eta udalerrian edo eskualdean dauden izaera publikoko laguntzetarako eta zerbitzuetarako sarbidea lehenesteko. | Emakumeen egoeraren ebaluazioa. |
| | EC 5. | Laguntzak jasotzen dituzten emakumeen lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko erraztasunak ematea. | EC 5.1. | Gizarte laguntzak jasotzen dituzten emakumeak lan munduan sar daitezen laguntza ematea. | EC 5.1.1. | Haurtzaindegi zerbitzua eskaintzea, gizarte laguntzak jasotzen dituzten edo gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden eta lan-munduan sartzeko programetan parte hartzeko konpromisoa hartzen duten emakumeei. | Haurtzaindegi zerbitzua erabiltzen duten emakumeen kopurua. |
| | | | | | EC 5.1.2. | Gizarte laguntzak jasotzen dituzten eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeei, lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko udalerrian edo eskualdean dauden gizarte- eta komunitate-bitartekoen berri ematea. | Eskura dauden gizarte- eta komunitate-bitartekoei buruz erabiltzaileek duten ezagutza maila. |
| | EV 5. | Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta desagerraraztea. | EV 5.1. | Genero-indarkeriari eta sexu erasoei aurrea hobeto hartzeko eta arreta hobea eskaintzeko neurriak sustatzea. | EV 5.1.1. | Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko jarduera-protokoloa diseinatzea. | Protokoloa izatea; emakumeei aholkularitza psikologikoa eta juridikoa eskaintzeko zerbitzua izatea Txorierriko Mankomunitatean. |
| | | | | | EV 5.1.2. | BERDINSAREA berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarean parte-hartze aktiboa izatea. | Bilkuren aktak. |
| | | | | | EV 5.1.3. | Emakumeenganako indarkeriaren aurka udalerrian, eskualdean edo probintzian dauden udal bitartekoen berri ematea. | Informazio jardueren kopurua. |
| | | | | | EV 5.1.4. | Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunean, azaroaren 25ean, informazio eta aldarrikapen jardunaldiak egitea. | Garatutako jarduera motak eta kopurua; herritarren parte-hartze maila. |
| | | | | | EV 5.1.5. | Genero-indarkeriaren arloko urteko txostena egitea. | Txostena egitea (salaketa eta kontsulta kopuruak, hartutako neurriak eta abar). |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **OSASUNA** | EM 6. | Osasun Zerbitzuen arloan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 6.1. | Bizitza zikloetan emakumeei eta gizonezkoei eragiten dieten gaixotasunei buruzko informazioa ematea eta aurrea hartzea. | EM 6.1.1. | Osasun zentroarekin lankidetzan, udalerriko emakumeen eta gizonen artean ohikoenak diren gaixotasunei buruzko datuak biltzea, bai eta kolektibo zehatzen artean ere (gazteak, etorkinak...) | Udalerriko emakumeei eta gizonei eragiten dieten gaixotasunei buruz herritarrek duten ezagutza maila. |
| | | | | | EM 6.1.2. | Osasun arloko sentsibilizazio, informazio eta prebentzio jardunaldiak egitea (sexu-harreman bidezko gaixotasunak, nahigabeko haurdunaldiak, bularreko minbiziaren prebentzioa...) | Osasun arloko sentsibilizazio, informazio eta prebentzio kanpainen kopurua. |
| | EE 6. | Osasunari buruzko erabakiak hartzean emakumeen parte-hartzea areagotzea. | EE 6.1. | Osasun fisiko eta mentalari buruz emakumeek duten ezagutza areagotzea. | EE 6.1.1. | Emakumeen osasunerako erabakigarriak diren faktore biologiko, psikologiko eta sozialei buruzko informazio jarduerak egitea. | Informazio jarduera motak eta kopurua; emakume hartzaileen ezagutza eta asebetetze maila. |
| | | | | | EE 6.1.2. | Bizitza zikloetan emakumeek jasaten dituzten gaixotasunen prebentzio kanpainak egitea. | Prebentzio kanpaina motak eta kopurua; emakume hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | EE 6.2. | Emakumeen artean ohitura osasuntsuak sustatzea. | EE 6.2.1. | Bereziki emakumeei zuzendutako osasun tailerrak egitea. | Prebentzio eta prestakuntza jardueren kopurua; parte-hartze maila. |
| | | | | | EE 6.2.2. | Osasun fisiko eta psikologiko iturri gisa, kirol jardueretan emakumeen parte-hartzea sustatzeko sentsibilizazio kanpainak egitea. | Sentsibilizazio kanpaina motak eta kopuruak; kanpainaren helmenaren analisia. |
| | EC 6. | Besteren laguntza behar duten pertsonak euren kargura dituzten emakumeen lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko erraztasunak ematea. | EC 6.1. | Besteren laguntza behar duten pertsonak euren kargura dituzten emakumeen (eta gizonen) egoera hobetzea. | EC 6.1.1. | Osasun arreta zerbitzuetako ordutegia herritarren beharren arabera egokitzea, batik bat, besteren laguntza behar duten pertsonak euren kargura dituzten emakumeen beharren arabera. | Erabiltzaileek osasun arreta zerbitzuetako ordutegiari buruz duten asebetetze maila. |
| | | | | | EC 6.1.2. | Besteren laguntza behar duten pertsonen zaintzaileei laguntza emateko tailerrak egitea, erlaxazio eta autoestimu jarduerak egitea. | Laguntza emateko egindako tailerren kopurua. |
| | EV 6. | Genero-indarkeriaren eta sexu erasoen biktimei arreta fisiko eta psikologiko egokia eskainiko zaiela bermatzea. | EV 6.1. | Emakumeenganako indarkeriaren aurkako esku-hartzea indartzea. | EV 6.1.1. | Genero-indarkeriaren aurka erakundeen arteko Jarduera-Protokoloaren edukiaren inguruan osasun arloko langileek behar duten prestakuntza sustatzea eta bideratzea. | Osasun arloko teknikariak gaitzeko egindako prestakuntza jardueren kopurua. |
| | | | | | EV 6.1.2. | Genero-indarkeria eta eraso sexualak jasaten dituzten emakumeak artatzeko udal protokoloa egitea. | Protokoloa izatea. |
| | | | EV 6.2. | Genero-indarkeria eta eraso sexualak jasan dituzten emakumeen arreta fisikoa eta psikologikoa hobetzea. | EV 6.2.1. | Genero-indarkeriaren eta eraso sexualen aurreko jarduera-protokoloa hedatzea osasun eragileen artean. | Osasun teknikariek protokoloari buruz duten ezagutza maila. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HIRIGINTZA, GARRAIOA ETA INGURUMENA (Arlo Teknikoa)** | EM 7. | Arlo Teknikoko politiketan eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 7.1. | Udalerriko emakumeen eta gizonen bizitza kalitatea hobetzea, hirigintza, garraio eta ingurumen arloko jarduera-planetan genero-ikuspegia txertatuz. | EM 7.1.1. | Teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea hirigintzaren hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziaz. | Sentsibilizazio eta prestakuntza jarduera motak eta kopurua. |
| | | | | | EM 7.1.2. | Teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea garraioak udalerriko emakumeen eta gizonen behar zehatzetara egokitzearen garrantziaz. | Sentsibilizazio eta prestakuntza jarduera motak eta kopurua. |
| | | | | | EM 7.1.3. | Teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea Ingurumen arloan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziaz (Agenda 21, Eskualdeko Landa Garapena) | Sentsibilizazio eta prestakuntza jarduera motak eta kopurua. |
| | EE 7. | Arlo Teknikoko proiektuak planifikatzean eta egitean emakumeen parte-hartzea areagotzea. | EE 7.1. | Udalerriko emakumeen eta gizonen bizitza kalitatea hobetzea, Arlo Teknikoko jardueretan herritarren parte-hartzea areagotuz. | EE 7.1.1. | Arloko teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea arloko jarduerak diseinatzean, planifikatzean eta hobetzean herritarren parte hartzearen, hau da, gizonen zein emakumeen parte hartze paritarioaren garrantziaz. | Sentsibilizazio jardueren kopurua. |
| | | | | | EE 7.1.2. | Herritarrek, bati bat emakumeek, garraio publikoei buruz duten asebetetze mailaren diagnosia egitea. | Arlo teknikoko jardueretan herritarren parte-hartze maila; herritarrek garraio publikoari buruz duten asebetetze maila. |
| | | | EE 7.2. | Gune publikoan emakumeek gizarteari egindako kultura eta historia arloko ekarpena balioestea. | EE 7.2.1. | Udalerriko kale, plaza, parke, monumentu eta elementu sinbolikoen izenak aztertzea, emakumeen balioespen maila analizatzeko. | Hiriguneetako aipamen, elementu eta sinboloetan emakumeen balioespena eta presentzia bermatzeko mekanismoa izatea. |
| | | | | | EE 7.2.2. | Kaleei, plazei eta abarrei emakumeen izenak jartzea sustatzea, eta kale eta monumentuen izenen hautaketa paritarioaren prozesua arautzeko udal araudia sortzea. | Udal araudia izatea. |
| | EC 7. | Hirigintza eta garraio azpiegiturak egokitzea, lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko beharren eta autonomiaren garapenaren arabera. | EC 7.1. | Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea ahalbidetzea, udal hiriguneen planifikazio eta diseinua hobetuz. | EC 7.1.1. | Hirigintza planifikazioarekin eta diseinuarekin lotutako oztopoak antzematea eta aztertzea, bateratzea oztopatzen dutenak, batik bat, euren kargura besteren laguntza behar duen pertsonaren bat duten emakumeen eta gizonena. | Antzemandako oztopo motak eta kopurua. |
| | | | | | EC 7.1.2. | Antzemandako oztopoak zuzentzeko neurrien zerrenda egitea. | Neurri zuzentzaileen zerrenda izatea. |
| | | | | | EC 7.1.3. | Hirigunea zuzentzeko neurriak aplikatzea, besteren | Hartutako neurri motak eta kopurua. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | laguntza behar duten pertsonen eta zaintzaileen autonomia garatzeko. | |
| | | EC 7.2. | Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea erraztea, garraio publikoen planifikazio eta diseinua hobetuz. | EC 7.2.1. | Garraio publikoak herritarren kontziliazio beharretara egokitzeko neurriak hartzea. | Antzemandako behar motak eta kopurua; hartutako neurri motak eta kopurua. |
| EV 7. | Udalerriko emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentsazioa areagotzea. | EV 7.1. | Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, gune publikoen planifikazio eta diseinua hobetuz. | EV 7.1.1. | Hiriguneen analisia egitea, emakumeentzako arriskutsuak eta iristezinak diren guneak antzemanez. | Antzemandako puntu beltzen kopurua. |
| | | | | EV 7.1.2. | Hiriguneen analisian antzemandako gune arriskutsuen eta iristezinen udalerriko mapa egitea. | Puntu beltzen mapa izatea. |
| | | | | EV 7.1.3. | Kexak eta iradokizunak jasotzeko bidea ezartzea, puntu beltzen mapa eguneratzeko. | Iradokizunak jasotzeko bidea izatea. |
| | | | | EV 7.1.4. | Arriskutsuak eta iristezinak diren guneak hobetzeko lehentasunezko neurrien zerrenda egitea. | Neurrien zerrenda. |
| | | | | EV 7.1.5. | Udalerriko puntu beltzak hobetzeko neurriak ezartzea. | Hartutako neurri motak eta kopurua. |
| | | EV 7.2. | Genero-indarkeriaren biktimei etxebizitzarako sarbidea erraztea. | EV 7.2.1. | Genero-indarkeriaren biktimei babes ofizialeko etxebizitzarako sarbideari buruzko informazioa ematea. | Sortutako informazio mota; emandako informazioaren kopurua. |
| | | | | EV 7.2.2. | Babes ofizialeko etxebizitzak banatzean (alokairua, salmenta...) lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktimei, hala behar izanez gero. | Udal etxebizitzarako sarbidea izateko laguntza eskuratzen duten emakumeen kopurua. |